

Des-Kontrol taldea (Arrasate, Gipuzkoa, 1996) beste urrats sendo bat ematen ari da. Des-Kontrol taldearentzat *urteak joan eta urteak etorri* esaldiak beste esanahi bat dauka: *diskoak joan eta diskoak etorri*. Izugarriko abiadura jarri dio bere disko emariari, baina muzin egin gabe diskoen kalitate maila handiari. Lehendik ere bazuen Des-Kontrol taldeak, Euskal Herrian bederen, horrelako proiektzioa eta erreferente izateko gaitasuna. Diskoz disko ari dira arestian esandakoari euren egiazkotasuna babesten eta hornitzen, kantuz eta musikaz. Euskal Herriko punk-oi mugimendua harro egon beharko luke Des-Kontrol taldearekin. Des-Kontrol taldeak bi aldaketa nagusi eta funtsezko izan ditu bere ibilbidean: 2004an Hodeik hartu zuen Osoronon lekua, eta Hodeik berak, 2007an, Haritz Unamunoren tokia mikroan. Azken aldaketa horrek beste jite bat eman dio taldeari eta Des-Kontrol oso egoera bikainean jarri, ahots tonua izugarri interesgarria da.

Des-Kontrol taldeak zazpigarren diskoa argitaratu du; "Aurrera begira" izenburua jarri dio. "Aurrera begira" diskoa 2009ko uztaila, iraila eta urrian zehar grabatu da Agiñenea baserrian (Azkarate, Nafarroa), Katarain estudioan, **Haritz Harreguy** soinu-teknikariaren eskutik; masterizazioa **Jonan Ordorikak** egin du Mami estudioan (Azkarate). Laguntzaileei dagokienez, berriro ere zerrenda luzea dakarkigu: "Sortu edo hil" abestian **Jon "Aborigen" Elizalde** (tronboia), **Jon "Lonbi" Lonbide** (tronpeta) eta **Igor "Fino" Ruiz** (saxofoia) egon dira. "Izan zinetelako gara" kantuan **Manu "Litel"**-ek gaita jo du. **Peio Lamarcak** "Burua hotz ta bihotza bero" idatzi du. **Asier Salak** gitarra akustikoa sartu du "Burua bero ta bihotza hotz" abestian, eta koroak "Maritxu" abestian. Haritz Harreguyk gitarrak konponketak egin ditu "Bi tanta", "Sortu edo hil" eta "Beti elkarrekin" kantuetan. "Maritxu" abesti herrikoiarako **Puñetazo** taldearen bertsio batean oinarritu dira.

Des-Kontrol taldearen lan mardul baten aurrean gaude, eta zazpigarrena da. Des-Kontrol taldearen "Aurrera begira" diskoa punk-oi generoan gaur egun dagoenaren mailatik gorago dagoela esan dezakegu. Des-Kontrol taldeak 70eko hamarkadaren bukaeran eta 80koan Erresuma Batuan egosten zen punk-oi musika ekartzen digu, eraberritua, baina garai hartan oinarritua. Eragina zuzena eta argia da. Zergatik eraberritua? Punk-rock-oi oinarrietan duelako aterpea, eta gaurko soinuek zutabe nagusia. Euskal Herriko musikari askok hango ispiluan begiratu zuten maiz 80eko hamarkadan Euskal Herriko Rock erradikalaren garaian. Gaur egungo Des-Kontrol taldeak haren isla ekarri digu modu eroso eta erakargarri batean. Soinu indartsua, ahots lakar eta sendoa. Des-Kontrol taldeak ongi daki nola erabili punk-oi mugimenduaren osagai horiek guztiak eta, inolako aldarrikapenik egin gabe, mugimendu horren oinordekotza du bere eskuetan. Des-Kontrol taldearen lana bikaina da. Kantu laburrak, amorruzkoak, azkarrak, itsaskorrak antzinako eran ekoiztiak. Des-Kontrol taldea pozik geratuko da sortu duen emaitzarekin, eta gure musika eszena ere bai.

1.- Des-Kontrol taldearen gehien hausnartutako diskoa da "Aurrera begira"?

Gehien hausnartutakoa? Momentu bakoitzak bere gauzak ditu eta, orain, gure nahia eta helburua horrelako disko bat egitea zen. Egia da gogoz landutako abestiak daudela baina badaude abesti biziak (askoz ere *rustikoagoak* direnak), akustikoak, eta oinordetzan hartutako abestiak; honekin esan genezake denetarik entzun genezakeela disko honetan. Hoberena duzue entzutea eta zuen iritzia ematea (kar, kar).

2.- Des-Kontrol taldea Erresuma Batuko 80ko punk-oi estiloan oso gustura dago. Baina ska doinuak ere sartu dituzue...

Ska... Beno, agian abesti batean badago reggae antzeko zati txikiren bat, baina hortik gure eraginetako bat dela esatea nahiko urrun dago. Lehentxeago esan dugun bezala, horrela irten dira abestiak, ez gara ibili honelako edo beste halako moduko abestiak bilatzen. Barrutik irten zaigun zerbait izan da eta, egia esan, nahiko gustura aurkitu gara abesti guztietan, nahiz eta beraien artean oso ezberdinak izan.

3.- Des-Kontrol taldea zergatik dago aurrera begira? Zer dago aurrean begira egoteko?

Atzera begira egoteak ez dakar gauza onik. Bizitza aurrera doan heinean geu ere aurrera goaz eta hau da gure hitz egiteko era, musika. Zergatik aurrera begira? Atzean daukagunaz arto sentitzen gara baina bizirik gaudelako gaude aurrera begira. Guretzat garrantzitsuena gaur ari delako gertatzen. Atzokoa jada bizita daukagunez, gure interesak gaurkoan eta geroan daude.

ritzi aizpuru (2009ko azaroaren 19a)

Hodei: baxua eta ahotsa

Oier: gitarra eta ahotsa

Markel: gitarra

Iker: bateria

Urtzi: bigarren ahotsa

Nako: soinu teknikaria

1999, "Des-Kontrol", maketa (Bronko Bullfrog)

2001, "Jarraituko dugu", singlea

2002, "Behin eta berriro" (Potencial Hardcore)

2004, "Des-Kontrol + Hell Beer Boys

2006, "Duintasunez eutsi" (Oihuka)

2007, "10 urte" DVD-CD (Baga-Biga)

2008, "Hipokrisia eta faxismoaren aurka" (Baga-Biga)

